

Heri Aldizkaria

Otamotz

1998ko otsaila 34. alea

Ihaurieta
ko giroa
argazkitan

Alergiei
buruzko
elkarriz-
keta

Agerre-
Aundiri
laguntzen




ESKOLA KIROLEKO GEHIGARRIA



Sekula jaso dugun argazki zaharrena da hau. Zer eta momia baten argazkia! Ikerketa sakon bat egiten saiatu gara artxibero eta arkeologo ezberdinei galdetuz baina ezin izan digute informazio gehiegirik eman. Otamotzek eginiko ikerketa baten ondorioz ordea, argazkian dagoen momia hori, Inixio Larreina dela baieztatzeko moduan gaude. Ah!! Eta ez omen da horren argazki zaharra, hain zuzen, 1978. urtekoa. Ihauterietako mozerro originala asmatu zuen Inixiok urte hartan. Ziur gaude ez zuela inork ezagutuko.

Oraingo honetan ihauteriei buruzko argazkia jaso dugu. Herriko hiru lagun, Inixio Larreina, bere senargaia eta laguntzailea ikus daitezke 1976ko argazkian.

Argazkiak Inixio Larreinak utzitakoak dira.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Lanbina

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

LIBURUDEIDA


GANBARA

Labeaga, 52

☎ eta faxa: 72 50 45

Zer eskaintzen dute jubilatuek?

Denbora batetik hona hainbat akbititate eskaintzen ari dira Zumarraga eta Urretxuko jubilatuek. Parte hartzeko betebeharrak bakarrik, jubilatua izatea da, ez dago diru kuota ordaindu beharrik. Ia egunero dago zeregina eta gainera, egun berezietan, ihauteriak kasu, festa bereziak antolatzen dituzte.



Zumarragako Gure Txoko jubilatuek eskaintzen dituzten eskaintza:

Astelehena: 16:00-17:00 irakurri eta idazten ikasi.

Asteartea: 15:30-17:30 eskulanak.
18:00-19:00 gimnasia.
19:00-20:00 erlajazioa.

Osteguna: 17:00-18:00 aldizkaria.
18:00-19:00 gimnasia.
19:00-20:00 antzerkia.

Ostirala: 15:30-16:30 irakurri eta idazten ikasi.
16:30-17:30 abesbatza.
18:00-19:30 bingoa

Monitore gisa Zumarragan Sandra Soriano eta Felix Olea aritzen dira eta urtean zehar bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte.

Mahai jokuen txapelketa, igel toka txapelketa, bilarra, sendagileek emandako hitzaldiak, ibilaldiak, gastronomi lehiaketa, sukaldaritza ikastaroak, ile apaindegia, bilobaren eguna eta jubilatuen eguna, tonbola, Goizalde izeneko aldizkaria eta hilabeteko azken igandean dantzaldia.

Urretxuko Aterpe jubilatuek eskaintzen dituzten eskaintza:

Astelehena: 16:30 abesbatza.


Asteartea: 16:00-17:00 irakurri eta idazteko klasea.
17:00-18:00 kultura klasea mahai inguruekin
18:00-19:00 gimnasia.

Asteazkena: 16:30-17:30 erlajazioa.
18:00 bingoa.

Osteguna: 16:00-18:00 eskulanak.

Honez gain, mahai joko txapelketa, bidaiak eta egun berezietan festak antolatzen dituzte ihauteri, San Martin eta San Sebastianetan alegia. Zumarragakoek bezala, urteko bazkaria eta aldizkari propioa ere badute.

Ekintzak jubilatuen bizi kalitatea hobetzeko asmoz antolatzen dira.



Gainzuri Ikastetxean Ingurugiro astea

Muriztu, bererabili eta berziklatu dioen lema kontutan hartuz ingurugiroaren astea burutu dute Gainzuri Ikastetxeko ikasleek. 1.go zikloko haurrek, papera landu dute eta Sasieta Mankomunitatekoek erakutsita, berziklatzen ikasi dute. 2.ziklokoek plastikoaz aztertu dute. Bi irteera egin dituzte, Legazpiko Berzik berziklatze enpresa berrira bata eta Deskargan gora dagoen berziklatze zerbitzura bestea. Irudimena landuz, jostailuak egin dituzte eta hitzaldien bidez, sensibilizazio kanpaina bat bul-

tzatu. 3.zikloko haurrek azkenik energi iturriak eta energi ituri alternatiboak aztertu dituzte. Umeen bidez, ingurugiroaren aldeko kontzientziazioa etxetara zabaldu nahi izan dute. Asteari amaiera emateko, ikasle guztiek eginiko eskulanak bildu eta erakusketa bat egin dute.

Lourdesko Ama ikastolak haurtzaindegia zabalduko du datorren ikasturtean.

1998-99 ikasturterako matrikulazio epea zabaltzearekin batera, zerbitzu berri bat eskainiko du Urretxu-Zumarragako ikastolak. Haurtzaindegia batipat, 0 eta 3 urte arteko haurrentzat izango da, honela, 0 eta 18 urte arteko hezkuntza prozesua osatuz. Nahiz eta ikastola eta bertako Gurasoen Elkarteak izan sortzaile eta bultzatzaileak, proiektu ireki bat izango da. Hau da, eskaintza, mankomunitateko haur guztientzat da. Ordutegia berriz, goizeko 7 terditatik hasi eta arratsaldeko 6 terdietara. Bestalde, 3 urte baino gehiagoko haur hezkuntzako haurrek bere eskolatik kanpoko orduetan bertako zerbitzuetaz baliatzeko aukera izango dute. Ikastolako ardura-dunek prentsaurrekoan esandakoaren arabera, elebiduna izango da, ama hizkuntza oinarritzat hartuz. Pagoeta Haurtzaindegiak 94 haurrentzat du tokia eta matrikulazioa uste bezala joan ezker, 8 edo 10 lanpostu berri sortuko ditu. "Eskola gori" edo "txabolitak" izena hartzen duen tokian kokatuko da. Egun osoko zerbitzuaren truke eta hileko, 0-1 urte arteko hauren matrikula 30.000 pezetakoa da. 1-2 urte artekoa, 20.000 pezeta eta 2-3 urtekoena, 10.000 pezeta.



TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLEKO IV. GEHIGARRIA



Shauteriak-ihauteri eta kirola-kirol, mozorroak alde batera utzi eta kirola egiten jarraitzeko garaia dugu. Beti ere kontutan harturik kirola ondo pasatzeko egiten dugula eta ez dela lehia gogorra bihurtu behar. Munduan badira kirola baina seriotasun gehiagorekin hartu beharreko gaiak baina hala ere, zer hobe duzuen denbora libre apurra kirola egiten igarotzea baino!! Hori bai. Futbolaz gain badira bestelako kirolak ere. Hilabete honetan esatebaterako, Maitane Andueza trialsinen aritzen den neska ezagutzeko aukera daukazue TXIKIMOTZen. On egin!!

TXIKIMOTZ

FUTBOLEKO EMAITZAK

ALEBIN MAILA

ARETO FUTBOLAMUTILAK (98-2-21)

Gainzuri A - D. Agirre	6 - 5
D. Agirre - L. Ama	2- 10
La Salle C - Gainzuri B	6 - 4
(Iñaki Ruiz 4 golekin partiduko goleatzaile nagusia)	
La Salle B - Haztegi E	3 - 8
Zelai-Aristi - Haztegi D	4 - 7
L. Ama C - Haztegi B	6 - 2

ARETO FUTBOLA NESKAK (98- 2-21)

La Salle A -Haztegi A 4 - 15
(Ane Arando eta Erika Heras partidu-
diko goleatzaile nagusiak hiruna
golekin bakoitza)
L. Ama A - D. Agirre B 5 - 1
(Amaia Perez partiduko goleatzaile
nagusia hiru golekin)

INFANTIL MAILA

Eskubaloia. NESKAK. (98-2-14)

La Salle C - Haztegi B	6 - 3
La Salle A - Haztegi A	1 - 9
Iparragirre - Ordizi	4 - 10
Olazabal A - Olazabal B	7 - 3

INFANTIL MAILA

Futbola. MUTILAK(4.taldea) (98-2-21)

L.Ama A - Iparragirre 2 - 8
Olazabal (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Iparragirre	2	1	1	0	4
2.-Olazabal	1	0	1	0	1
3.-L. Ama	1	0	0	1	0



EGUTEGIA (98-2-28)


-Pilota partiduak arratsaldeko
15:30 etatik aurrera
Zumarragako Beloki pilotale-
kuan.

-Saskibaloia goizean Aldiri
eta Bikuña polikiroldegietan.
-Herri kirolak goizean
Urretxuko Ederrena pilotale-
kuan.

-Igeriketa goizean Bikuña
kiroldegian Legazpin.

-Eskubaloia Aldiri,Haztegi eta
La Sallen.





FUTBOLEKO EMAITZAK

(98-2-21)

INFANTIL MAILA

Futbola. MUTILAK(5.taldea)

Haztegi B - La Salle C 1 - 3
 Haztegi C (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi C	1	1	0	0	3
2.-La Salle C	2	1	0	1	3
3.-Haztegi B	1	0	0	1	0

INFANTIL MAILA

Futbola.MUTILAK(6. taldea)

La Salle B - Haztegi A 3 - 0
 La Salle A (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi A	2	2	0	0	6
2.-La Salle A	1	0	0	1	0
3.-La Salle B	1	0	0	0	-1

KADETE MAILA

Futbola. NESKAK.

Itzulerako finalerdiak:

Olazabal - Haztegi 0 - 4
 La Salle - L. Ama 3 - 1

Finala Martxoak 14 Argixaon 11etan
 Haztegi - La Salle
 3^a - 4^a Postuak (Egun berdinean)
 L. Ama - Olazabal

TXIKIMOTZ

Maitane Andueza:

Munduko txapelduna izatea gustatuko litzaidake trialsinean



Nolatan hasi zinen kirol hau egiten?

Orain dela urte bete Santa barbaran proba bat zegoen eta ikus-tean gustatu egin zitzaidan.

Asko entrenatzen al duzu?

Orain gutxiago, astean bi edo hiru ordu. Lehen bost, sei ordu. Normalean etxe ondoan entrena-tzen dut baina nohizbehinka Arrasatera ere jaoten naiz.

Entrenatzailerik ba al duzu?

Bai, aitarekin aritzen naiz berak al duenean. Bestela, bakarrik edo kirol honetan aritzen diren lagunekin.

Zer nolako maila dago Euskal Herrian?

Jende asko aritzen da kirol honetan baina gehienak mutilak dira. Neskatan maila askoz ere baxuagoa da.

Kirol garestia al da?

Bai. Trajeak eta bizikletak diru asko balio dute eta gainera asko bidaiatu behar da probak herri ezberdinetan izaten direlako.

Nondik datorkizu bizikletaren afizioa?

Bizikletan ibiltzea betidanik gustatu izan zait. Iaz erosi nuen trialsineko bizikleta eta kirol hau praktikatzen hasi nintzen.

Zer asmo dituzu hemendik aurrera?

Euskadiko txapelketa irabazi ondoren Espainiakora joateko aukera dut. Bertan ondo ibiltzeko esperantza handiak ditut eta hau irabazi ezker, Munduko txapelketa joateko gastu guztiak ordainduko dizkidate. Dena den, mundu mailan jende ona dago Japonia aldean eta ondorioz, zaila izango da. Gainera, kontutan izanik neskatan maila bakarra dagoela, 30 urteko emakumeen aurka ere aritu beharko dut.

Talderik ba al daukazu?

Ez. Ez da talderik egoten beraz ni ere bakarrik aritzen naiz.

Zer kultzatzen zaitu aurrera jarraitzerako?

Asko gustatzen zaidalako jarraituko dut aurrera ahal dudan arte.



HERRIA: EZKIO

ADINA: 12 URTE

TALDEA: -


GARAIPENAK: GIPUZKOAKO TXAPELDUNA
EUSKADIKO TXAPELDUNA

PARTE HARTU DUEN PROBA GUZTIETAN LORTU DU GARAIPENA.

IDOLOA: ELITE MAILAN ARITZEN DEN MIKEL IÑAURBE DONOSTIARRA.

EZ DU INONGO BABESLERIK ETA ONDORIOZ BERAK ORDAINDU BEHAR IZATEN DITU BIDAIK ETA TRIALSINEAN ARITZEKO BEHAR DITUEN MATERIALAK, BIZIKLETA BARNE.

Faltan botatzen al duzu zinea?




Josu Aiastui

Bai zeozer bai, hemen zinea balego joango nintzateke, eta Legazpira ez naiz joaten ez daukadalako denborarik.




Fernando Litago

Nik uste baietz. Denbora pasatzeko aukera ona da. Legazpira joatera ez da batere erosoa. Zinea egongo balitz joango nintzateke. Bestela ez, noski.




Aitor Litago

Zinea ondo dago jende guztiarentzat entretenigarri gisa. Pelikulak ikustea asko gustatzen zait baina orain herrian zinerik ez dagoenez, ez dut nire hobby hau betetzerik.



Joana Carro

Lehen hiru zine areto zeuden eta orain bat bera ere ez. Zinea asko gustatzen zait eta beste aukerarik ez dudanez, Legazpira joan behar izaten dut pelikulak ikustera.



Michael Gutteridge

Batipat umeez eskaintza zabal behar dute beraien denbora libre ondo aprobetxatzeko. Herri guztiek behar dute zine bat. Nik ez dut Legazpira joateko ohiturarik baina nire alaba joaten da.



Rafa Fdez de Lezea

Zine areto bat Urretxu eta Zumarraga bezalako herrietan beharrezkoa dela iruditzen zait. Entzuna dut Zumarragako udala zine bat egitekotan dela. Ea zailtasun guztiak lehenbait lehen konpontzen diren eta zine areto on bat izaten dugun.



BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

BIONA



ARozTEGIA

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

OSTIRALA, LARUNBATA ETA ASTEARTEA, A ZE ERROPA NAHASTEA!!! AURTENGO IHAUTERIE-TAN DENETIK IZAN DUGU, PUNKIAK, LAPURRAK, PAILAZOAK, PIRATAK, DRAGOIAK, TXAKURRAK... EDERKI ASKO DANTZATU ZUTEN GUZTIEK JOSELU ANAIK TALDEAREKIN. TOLOSARA JOAN BEHARRIK EZ DA IZAN ONDO PASATZEKO. HONA HEMEN IHAUTERIEI ERREPASOA EGITEKO ARGAZKI BILDUMA.





Agerre-Aundiri laguntzen, Ezkiio-Itsasoko herri ekimena

Abenduaren 15ean Agerre-Aundi baserria erre zenetik, ekitaldiak antolatzen ari dira kaltetuak laguntzeko asmoz.



Abenduaren 15eko arratsaldeko 3.30etan, Agerre-Aundi, baserriak bi etxebizitzakoak su hartu zuen. Hasiera batean ez zirudien baserri osoa erreko zenik baina 8.30etarako, dena kixkali zen.

Ekonomikan, gainontzeko egunetan sartzen zuten egur kopuru bera sartu zuten baina, hala ere, abeak su hartu eta bost ordutan,

dena erre zen. Oñati, Urola Garaia, Ordizi eta Tolosako suhiltzaileak, herritarrak, nahiz Ertzaintzak eginiko ahaleginak alferrikakoak izan ziren. Zubillaga eta Izagirre sendiak, zazpi eta hiru kideko familiak, soinean zutenarekin gelditu ziren, guztia erre zitzairen eta. Lehen gaua, familiartekoekin egin ondoren, behin-behineko etxea lortzeko harremanetan hasi

zen Ezkioko udala. Zumarragako udalak bi etxe utzi zizkien, bata altzariekin eta bestea gabe. Ezkioko udalak osatu zuen altzariak falta zireneko etxea, egoerari, behin-behineko irtenbidea emanaz.

Berehala auzolanean

Hurrengo egunean, hilaren 16an, herri bilkura bat egin zuten, Agerre-Aundiri laguntzen komisioa sortuz.

Maria Isabel Olanga, Ezkioko alkatesa eta era berean komisio honetako bozeramailea denak esandakoaren arabera, lanen banaketa egin zuten, talde ezberdinak sortuz. Diru kontuak eramango zituen taldea, auzolaneko garbiketaz arduratuko zena, prentsaz, ondareaz eta jaialdietaz arduratzeko talde ezberdinak osatu zituzten. Hamabostean

behin biltzen jarraitzen dute oraindik ere.

Gabon eskeak seku-lako arrakasta

Lehenengo eginkizuna baserria garbitzea zenez, auzolanetarako deialdia egin zen. Ezin hobeto erantzun zuen jendeak 30 pertsonako hiru talde osatuz. Behin lan hau amaitu eta gero, diru bilketarekin has-teko gabon eguna aproposa zela bururatu zitzairen. Gabon eskerako ohizko taldeaz gain, bi talde gehiago osatu zituzten. Afaria pres-tatu behar zutenak ezik, gainontzeko guztiak, gabon eskean aritu zirela esan daiteke. Diru bilketa arrakastatsua suertatu zen, 530 biztanke dituen herri batean, 731.000 pezeta bildu ziren eta. Okasiorako, Iñaki Muruak, bertsoak egin zituen.

Bestalde, errifak saltzeari ere berehala ekin zioten. Ordiziako gabon ferian eta Elgoibarko gabon zaharreko feriatan hasi ziren eta Ezkio-Itsaso nahiz inguruko herrietako taberna eta elkarteetan ere salgai daude oraindik. Zekorra, martxoaren 14an, Zumarragako Beloki pilotalekuan egingo den bertso-jaialdian zozketatuko da. Alegin izan zen Gipuzkoako Krossean, taberna bat jarri zuten pintxo eta edariak salduz. Urretxuko Ederrena pilotalekuan berriz herri kirol jaialdia antolatu zuten otsailaren 15erako. Arto-
lokotx bilketan eta aizkoran neurtu zituzten indarrak Urretxu eta Ezkio-Itsasokoek.



Gabon eskean honelako hiru talde aritu ziren Agerre-Aundiren alde.

Elkartasuna alde guz tietan

Agerre-Aundiri laguntzen komizioak dioen bezala guztion laguntza eskuzabalak bakarrik arintzen ditu honelako ezbehar larriak. Maria Isabel Olangak, alde guztietan jaso duten laguntasuna aipatu nahi luke. Jendea, dohan laguntzeko prest azaldu da eta hori eskertzeko modukoa da. Alegiko krossean erabilitako osagarriak ere dohan eman zizkieten. Herri Kiroletako partaideak eta martxoaren 14an arituko diren bertsolariak ere dohan etorriko dira. Bestalde, diruz laguntzeko zabaldu duten kontu korrontean, herriko partikularrek 555.000 pezeta eman dituzte eta kanpoko talde eta udalek berriz, 800.000 pezeta.

Oraindik ere badago laguntzerik

Martxoaren 14rako, Zumarragako Beloki pilotalekuan bertso-jaialdia antolatu dute: Egaña, Lizaso, Lujanbio, Sarasua, Irazu eta Peñagarikano arituko dira Iñaki Murua gai-jartzaile dutela. Bestalde, diruz lagundu nahi duten guztientzako kontu korronte bat zabalik dago. Hurrengo hain zuzen ere: **KUTXA:** 2101.0059.41- 0010701647 (Agerre-Aundi)

Martxoaren 14an puntako sei bertsolari Zumarragan erretako baserriaren alde

Hona hemen Iñaki Muruak gabon eskerako asmatutako bertsoak:

Etixerik etxe kanta-kantari gabonetako oihartzuna denok biltzeko bitarteko da ohitura z(ah)ar ezaguna. Famili edo lagun artean zabaldu alaitasuna ahaztu gabe urrun daukagun senide edo laguna; itxaropenez bete nahi dugu Jesus jaio zen eguna.

Aurten helburu bikoitza dakar gabon kantaren mezuak Agerre-Aundi erre baitigu suaren indar (ah)altsuak bat egin ezik (ah)alegin denak gerta daitezke antzuak; borondatea eskatzen dizu gure eztarri gartsuak, malkoak irri bihurtu ditzan elkartasunaren suak.

Doinua: Mutil koskor bati itsu aurreko...

J.A.Navarro: "Akaroen alergia da gure ingurunean gehien ematen dena"

Akaroak, armiarmen familiako parasitoak dira eta gure azala jaten dute.

Udaberrian alergia kasu gehiago izaten direla pentsatuz, Jose Antonio Navarro, Zumarragako Antzinako Ama Hospitaleko alergoalergik hitzegin dugu. Donostiar honek, udaberrian ez dela kasu gehiago ematen esan digu eta gure inguruan ohizkoena den alergia, akaroena, nola tratatu dezakegun azaldu digu.

Alergia gehiago nabari al dira udaberrian?

Ez, hori pixka bat mitoa da. Akaroen alergia adibidez, urte osoan ematen dena da. Gipuzkoan polenak, ez du arazo gehiegirik sortzen. Akaroak, gure ingurunean alergia gehien sortzen dituzten parasito txiki batzuk dira, armiarmen familikoak. Garai batean alergia autsari izaten zitzaiola esaten zen baina orain, badakigu, autsari baino, akaroek diegula alergia. Gure azala jaten dute pixkanaka eta koltsoi, manta, maindire, alfonbra eta abarretan bizi dira.

Ze alergia mota dira ohizkoenak?

Lehenbiziko postuan,

akaroak daude. Bigarren postuan beharbada, medikamentuak egongo dira. Baina honek argibide bat behar du. Jende askok, medikamentuei alergia dietela uste du eta gure lana, medikamentuei alergia ez dietela erakustea izaten da baita ere. Ez bait da beti horregatik.

Nola sendatu daitezke alerriak?

Gaixotasun alergikoen tratamenduan, hiru maila daude. Lehena, gaixotasuna sortzen duen zergatia zein den jakin eta gero, agian kontaktu hutsa ebituz sendatu daiteke. Dena den hau batzutan ezinezkoa da. Akaro eta polenarekin adibidez, hau ezin da egin. Orduan, kontaktua ahalik eta gehien nola murriztu dezaken erakusten saiatzen gara gaixoari. Beste maila batean, tratamenduak daude. Asko ditugu eta seguroak dira. Normalean tratamendu hauekin sintomak kontrolatzen ditugu. Azken maila batean txertak daude. Gaixotasun alergikoen eboluzioa aldatzeko dugun modu bakarra dira. Tratamendu luzeak dira azken hauek eta helburua,



gorputza, alergia sortzen dion gaitzari ohitzea da.

Zergatik izaten dira alerriak?

Mila arrazoi daude. Jende askok, gaur egungo bizi kalitateari ordaindu

behar diogun prezio bat dela dio. Gaur egungo bizimoduak, alergonoak, alerriak sortzen dituzten gauzak dakartza. Etxeak adibidez, gero eta isolatuagoak daude, hortaz, etxe barruan, egoera hobek

ematen dira akaroak hazitzeko. Mendebaldeko lurraldetan asko ematen da hau.

Ze neurri har daitezke alerjiarik ez izateko?

Galdera zaila da. Jaioberri eta ume txikiak bizi diren logeletan, alergen maila gutxitu ezker, ume hauek, handitzean, gaixotasun alerjiko gutxiago izango dituzten teoria bat dadago. Baina guzti hau aztertzen ari dira eta ez dago datu zehatzik momentu honetan.

Ze sintoma dira nabarientak?

Hitz gutxitan esateko, akaroen kasuan, sendatzen ez den katarro bat da. Polenarekin sintoma gehiago ere izan daitezke. Bi kasutan, doministikuak, mukiak, sudurra tapatua, arnasa hartzeko zailtasunak, txistua bularrean, eztula...

Ze alergia da sendatzen zailena?

Tratamendu bereziena behar bada, erle eta listorrek sortutako ziztadek behar dute baina ez da zailena, oso erantzun ona ematen baitute tratamendu hauek. Ziztadak sortutako erreakzio alerjikoak zela eta eibartar bat hil egin zen Burgosen. Baina garrantzitsua da jakitea ziztadek sortutako erreakzio alerjikoaren aurka txerto oso onak ditugula. Gure ingurunean, akaroen alergia da tratatzen zailena. Temperatura epela eta hezetasun maila egokia dugulako parasito hauek



bizi daitezten.

Zein da tratamendua akaroen kasuan?

“Sendatzeko alerjiarik zailetakoa, erle eta liztorren ziztadak sortutakoa da”

Lehen ere esan dugu, gure azala jaten dutela pixkanaka. Batez ere, ohean bizi dira eta horregatik, mandireak batez ere, 60

gradutara garbitzea komeni da, temperatura horrekin hil egiten dira eta. Gelan, alfonbrarik ez edukitzea ere komeni da. Eguzkia dagoenetan, gela ondo bentilatzea komeni da. Kafazioa gehiegi ez piztea, temperatura epelean hobe bizi baitira akaroak. Bestalde, arnasa hartzeko zailtasuna duten pertsonak, gelan, humifikadoreak jartzeko ohitura dute. Alergia mota hau dutenentzat ez da ona akaroak hobe bizi baitira humifikadore hauekin.

Jendeak jarraitzen al ditu ezarritako tratamenduak?

Askotan, guk ere badakigu, oso zaila dela hilabete askotako tratamendu bat egunero jarraitzea. Bezeroei, oso garrantzitsua


dela esplikatzeko saiatzen gara baina badakigu, askotan, ondo sentitzen den gaixo batentzat zaila dela tratamendua jarraitzea. Hala ere, beharrezkoa da.

Kutsadurak eta gaur egungo bizi kalitateak, alergia kasu gehiago al dakartza?

Badirudi baietz. Akaroena hain zuzen honegatik izan daiteke. Bestalde, fabrikatan erabiltzen diren sustantzia kimiko batzuk ere alerjiak sortuzakete.

Jendea ondo informaturik dago alergia dagoenentz?

Gero eta informazio gehiago dago eta hori, eskertzekoa da.



Duela urte t'erdi inguru Jesus Mari Zamora eta Alberto Gorriz errealeko jokalaririk ohiek Oreka Kirol Eskola sortu zuten. Donostian eman zituzten lehen pausuak, ondoren Hernanira ere hurbildu ziren eta orain Zumarragan hasi dira. Argixao zelaian arituko dira lanean eta bertako arduradunak futbolarekin harreman estua duten hiru gazte izango dira: Aitor Alvarez, "Musti" Mujika eta Luis Heras. Otamotzek azken honekin hitzegin du euren asmoen berri izateko.

Errealeko jokalaririk ohien futbol eskola Zumarragan

Nondik sortu zen proiektu hau?

Beraiek guri esan digutenez, aspalditik zuten umeentzako futbol eskola bat sortzeko ideia. Eskaera zegoela ikusten zuten eta adin gazte horretarako umeentzako eskaintzarik ordea ez. 7 eta 13 urte bitarteko umeek futbolekin ikasteko aukera zehatzik ez omen zuten. Zumarraga aukeratu dute estrategikoki

puntu ona delako Goierri ingurura begira eta belar artifizialeko zelaia duela. Hau ikasteko oso egokia da.

Zuek nolatan sartu zineten proiektuan?

Beno, Musti, Alvarez eta hirurok Gorriz eta Zamoraren ezagunak ginen. Hau dela eta guran pentsatu zuten Zumarragan eskolarako arduradunak bilatzerako orduan. Gainera, bazeki-

ten nik entrenatzaile karneta dudala.

Zein da zuen helburua?

Futbolera gaitasuna zuten ume batzua aurrera egin gabe geratzen ziren. Orain, gure eskolara datozenak behintzat. euren ahalmena erakusteko aukera izango dute. Bestalde, gure asmoa herriko taldeekin eta besteekin harremanetan egotea da eta balio duten gaz-

teei atek zabaltzen laguntzea. Esan beharra dago eskolekin ere harremanetan gaudela eta guk eskaintzen dugun prestakuntza euren eskaintzen dutenarekin osagarria dela.

Nola egiten duzue lan umeekin?

Esan beharra dago, futbol eskola bat bada ere, eskaintzen dugun prestakuntza orokorra dela. Hau da, helburua nagusia umeak hezitzea da. Disziplina eta talde lana bultzatzen ditugu eta kirolaren praktika egokia bultzatu nahi dugu txikitatik. Mediku jarraipena ere egiten zaie eta bakoitzaren eboluzioa jarraitzea da denboran zehar. Hamarreko taldetan lan egiten dute kontaktu zuzenagoa lortzeko. Entrenamenduak oso zehaztuak ditugu euren adinarentzat egokiak eta dibertigarriak izan ditezten. Uneoro burutuko dugun jarraipen eta datu bilketaren berri emateko gurasoekin bilerak izango ditugu. Hauetan euren seme-alaben ahalmenak nondik bidera daitezkeen agertuko diegu.

Nolakoak dira entrenamenduak?

Astean bitan entrenatzen dute, ordu eta erdiz. Entrenamenduak dibertigarriak izan daitezten saiatzen gara. Beroketa, baloiarekin ariketak, joku desberdinak, luzatze-ariketak eta abar egiten ditugu. Helburua ikastea eta ondo pasatzea da.

Zer nolako erantzuna jaso duzue?

Arduradun nagusiek esan dutenez, espero zutena baina erantzun hobea lortu dute. 15-20 ume inguruk jada eman dute izena. Kontutan izan behar bada oso garai txarrean hasi garela. Gure asmoa kurtso hasieran hastea zen, baina uste baina beranduago hasi gara eta gauza hauetarako hobe izaten da kurtsoarekin batera hastea.

Bukatzeko esan nahiko nuke udal-leku batzuk antolatzeko asmoa daukagula Iruñan, Osasuna futbol taldearen egoitzan. Modu honetan, gure ikastaroa herri desberdinetan egin duten haurrak, elkarrekin egongo liriteke adiskidetasunean gehien atsegin zaiena eginez.



Bittor Ansorena
Urolako presidentea

Urolaren futbol eskola betiko martxan

Oreka kirol eskolaren ezaugarriak bereziak badira ere, lehenagotik ere bagenuen futbol eskola Zumarraga-Urretxun. 1993.urtea ezkerotzik, Urola futbol taldeak eskola propioa du eta honen berri, Bittor Ansorena presidentea eman digu.

Urolako infantiletara heltzen ziren gazteek, 13 urte, futboleant heldutasun gutxi zutela konturatu ziren. Hau dela eta, 10-12 urte bitartekoentzako eskola antolatu zuten. Bere helburua, gazteak Urolan jokatzeko prestatzea da. Honetarako ekainean, eskola ezberdinetako arteko txapelketa antolatu eta bertan hobekien dabilzanak aukeratzen dituzte. Mutikoak bi taldetan banatuak daude adinaren arabera, astean bitan entrenatzen dute, bi orduz eguneko eta entrenamenduen helburua gazteen artean talde lana eta adiskidantza bultzatzea da. Bestalde, larunbatero partiduak jokaten dituzte, urtean behin Frantziara joaten dira txapelketa bat jokatzera eta Iñaki Mendiluzeren omenezko torneoan ere parte hartzen dute. 12 urterekin, eskola honetan bukatu ondoren, onenak Urolako elastiko horia jantzen dute. Ansorenak esandakoaren arabera, bi eskolen artean ez dago inongo kompetentziarik.



Argazkiak: GU SPORTEko Javier Oterminek utzitakoak dira.



Luis Mari Segurola Zumarragako parrokoa

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Apaiza, futbolista...

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa nahiago.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Paletan jokatu, mendian ibili eta irakurri.

✓Kolore bat?

Urdina, gorria edo arrosa.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Bidaia bat, edo irakurtzeko beta.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Milango kardenala.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Lanerako baina atseginez.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Hankak.

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Arpegira.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Lanpostuak.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Antigua, Beloki eta Irimo.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Eskoriatza, Eibar edo Soroluzen.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Bromatan nabilela, pixkat pasatzea.

✓Bete gabeko amets bat?

Ikasketetan eta apaizgintzan gehiago

ez sakontzea.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Kantatzeko eta entzuteko.

✓Kantu bat.

Iparragirrenak eta napolitanak.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Zain egon.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Erlazio ona izatea.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Nik sinisten dudan Jesukristoren Jainkoagatik, famili edo lagun berezi bategatik.

✓Gaua ala eguna?

Eguna.

✓Lo egiteko zer?

Pixka bat irakurri edo irratia entzun.

✓Gustoko janari bat?

Menestra on bat, arraina...

✓Ura, ala...

Janarrietan ardo pixka bat nahiago.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Pastoralgintzan sortutako hainbat proiektu ezin izan ditut egin.

MASTER HEZKOR
CADENA

Zumarragako elektrogailu
erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa:72 24 00

PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75



● Ondo pasa-
tu zure
ospakizune-
an eta ea
gehiago
jaten dezun.
**ZORIONAK
ERIK!!!**



● **ZORIONAK
IÑAKI!!!**
Zure urtebe-
tzea dela
eta oso
ondo pasa
ezazula, eta
kontuz txan-
painarekin!



● Mikel Hendaiara
joateko motorra
bazenuen, Santan-
derrerako autobu-
sa ere bai, oraingo
honetan Urretxun
ibiltzeko ea nola
konpontzen zaren
bizikleta horrekin.
ZORIONAK!



● Aiala, aurten ez
gaituzu txokolate
jatera gonbidatu,
baina datorren
urtean gonbidatu
gabe ere joan
egingo gara.
ZORIONAK aita
eta amaren partez!



● Gure bihu-
rria zorion-
du nahi
dugu, bere
10. urtebe-
tzean.
**ZORIONAK
ITZIAR!!!**



● Aupa Mª Jose!
Segi horrela
euskera ikas-
ten eta ondo
pasa zure
urtebetetze-
an!
**ZORIONAK
Mª JOSE!!!**



● Martxoaren 9an
bost urte bete-
tzean, zure
guraso, anai
Jon Ander,
aitxatxa,
amama eta
osaben partetik
ZORIONAK



● Happy birth-
day in the
day of your
birthday,
have a good
time. Your
second family!
**ZORIONAK
TOMMY!!!**



● Lora sorta bat
daukat nere
aurrean eta
denen artean
nabarmentzen
dena larrosa
gorri bat
**ZORIONAK
ROSA MARI!!!**



● Zure urte
betetzean
egun zora-
gari bat
pasa deza-
zula.
**ZORIONAK
Mª ANGELES!**



● Ai, Leire,
Leire, zein
bihurri zaren
izan ere!
Martxoak
18 egun
bete eta zuk
5 urte. Ez al
da politte!



● Miraria izan-
go da aur-
ten zure
urtebetetzea
ospatu
gabe geldi-
tzen banaiz.
**ZORIONAK
MILA!!!**



● Epa Nekane!
Zer pentsa-
tzen zenuen
ez zintudala
zoriondu
behar ala?
Ba ez! **ZORIO-
NAK!!!!** eta
ondo pasa.



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

JUAN ELGARRESTA
URRETXU

Euskal Herrian euskaraz ari ez denak
ez du karitate handirik erakusten
kanpotik etorritakoarekiko,
hemen erdaraz ari dena
erdaldunaren kontra ari da,
hemengoak izateko armoz etorri denari,
euskara entzunez, euskara ikasteko
beharra eta aukera zapuztuz,
euskalduntzeko bideak bait dizkio ixten
eta bertan bertakotzeko laguntza ukatzen.

Antze
(Jazten aldizharitik hartua)

